

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea herriko hilerriaren tasa arautzen duen ordenantza

Pagoetako Kontzejuak, 2025eko maiatzaren 23ko bilkuran, tokiko hilerriaren tasa arautzen duen ordenantza onetsi du, eta haren testu osoa argitaratzea erabaki du. Testu hori argitalpen hau egin ondoren jarriko da indarrean.

Herriko hilerriaren tasa arautzen duen ordenantza

1. artikulua. Xedapen orokorrak

1. Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginean ezarritakoaren arabera, kontzeju honek herriko hilerriaren tasa ezarri eta eskatuko du ordenantza honen arabera. Tarifa aplikagarriak jasotzen dituen eranskina ere ordenantza honen zati da.

2. Ordenantza Pagoetako herrian aplikatuko da.

2. artikulua. Zerga egitatea

Ordenantza honetako eranskinean jasotako tarifen adierazitako zerbitzuren bat ematea da zerga egitatea. Horrek berekin ekarriko du ordaindu beharra.

3. artikulua. Subjektu pasiboa

1. Subjektu pasibo zergadunak dira hilobiratze eskubidearen eskatzaileak, edo zerbitzua eman dakien eskatzen dutenak, eta, hala balegokio, hilobiratze eskubideen titularrak.

2. Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. eta 42. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek.

3. Salbuespen subjektiboak.

Salbuetsita egongo dira honako zerbitzu hauek:

a) Kontzejuko egoitza zentro sozialetan sartutako pertsonen ehorzketak, baldin eta gidatzea aipatutako establezimenduen kontura eta hildakoen familiak ordaintzen duen hileta ospakizunik gabe egiaztatzen bada.

b) Oinarrizko errenta jasotzen duten familia unitateetako kide diren pertsonen hilotzak lurperatzea, edo horien egoera ekonomikoa laguntza mota hori jasotzeko beharrezkoa denaren baliokidea izatea.

4. artikulua. Zerga oinarria

Zerbitzua zein unitatetan gauzatzen den, hura da zerga oinarria, tarifen ezarrita dagoenaren arabera.

5. artikulua. Kuota

Zerga kuota zehaztuko da eranskinean jasota datorren tarifa aplikatuta.

6. artikulua. Sortzapena

Kargapeko zerbitzuak jasotzean sortzen da tasa eta hura ordaindu beharra. Hau da, zerbitzuok eskatzen direnean sortuko da ordaintzeko beharra.

7. artikulua. Kudeaketa. Hilobiratze eskubideak

1. Hilobiratze eskubideak Pagoetako hilerria kudeatzeko eta administratzeko barne araudian ezarritakoaren arabera esleituiko dira.

- a) Subjektu pasiboek eskatuko dituzte behar dituzten zerbitzuak.
- b) Zerbitzu bakoitza banaka eta modu autonomoan likidatuko da.
- c) Kontzejuari tasa ordaindu ondoren emango da baimena.

2. Aurreikuspenezko aseguru etxeak edo antzekoak ez dira inolaz ere emakiden titularrak izango.

3. Ehorzketa eskubideak dagokien tituluen bidez egiaztatuko dira. Titulu hori administrazio batzarrak emango du.

Hilobiratze eskubideen tituluetan honako hauek adierazi behar dira:

- a) Hilobia eta hilobiratze titulua identifikatzeko datuak.
- b) Adjudikazio data.
- c) Titularraren izen-abizenak eta NANA.
- d) Ordaindu den zenbatekoa.

4. Kontzesioak 15 urteko iraupena izango du lurreko hilobian, eta 30 urtekoa horma hilobi eta kolunbarioetan.

5. Gorpuak lurperatzeko hilobiratze eskubidea izateko baldintza da lurreko hilobiak, horma hilobiak eta kolunbarioak izatea hilerrian.

6. Ehorzketa eskubidea duen titularra hiltzen denean, eskubide horren jabe egingo dira haren testamentuko jaraunsleak, ezkontide/izatezko bikotekide alarguna edo, horrelakorik egon ezean, testamentu gabeko oinordetzarako eskubidea dutenak.

7. Ehorzketa eskubidearen eskualdaketak ez du aldatuko hasiera bateko emakidaren iraupena.

8. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Tasei buruzko arau hausteei dagokien guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagozkion zehapenen kasuan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek xedatutakoari jarraituko zaio.

9. artikulua. Azken xedapenak

Ordenantza hau ALHAOn oso-osorik argitaratu ondorengo hamabosgarren egun baliodu-nean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi ondoren.

10. artikulua. Xedapen iragankorrak

Ordenantza indarrean sartzean, horma hilobi eta kolunbarioak eraiki zirenetik izandako ehorzketak erregularizatzeko epe bat ezarriko da, ordenantza honetan ezarritakoa aplikatzeko.

Eranskina, herriko hilerriaren tasarena

Lurreko hilobia 15 urterako emateagatiko tasa: 374,50 euro.

Horma hilobia 30 urterako emateagatiko tasa: 1.330,00 euro.

Kolunbarioa 30 urterako emateagatiko tasa: 850,00 euro.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pagoeta, 2025eko uztailaren 3a

Lehendakaria

JOSÉ ÁNGEL RUIZ DE SAMANIEGO RAMÍREZ DE LA PISCINA